

HUTSEN ZUZENKETA, Hezkuntza Ikaskuntza eta Berrikuntzako zuzendariarena, 2023ko uztailaren 20ko behin betiko Ebazpena zabaltzen duena, zeinaren bidez izendatzen baitira unibertsitateaz kanpoko euskal hezkuntza-sistemaren mentoria digitaleko CompDigEdu programan parte hartzen duten Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoak, 2023/2024 ikasturterako.

Hezkuntzako sailburuordearen 2022ko apirilaren 26ko Ebazpenaren bidez, ikastetxeak eta horiek proposatzen dituzten irakasle mentoreak hautatzeko prozedura ezarri zen, CompDigEdu sarea, mentoria digitalekoa, eratzeko, euskal hezkuntza-sistemako ikastetxe publikoetan digitalizazioa eta irakasleen gaitasun digitala sustatzeko helburuarekin. Prozedura horretan, ikastetxeek 2022/2023 eta 2023/2024 ikasturteetan parte hartzea aurreikusten da, betiere Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzaren kontrako txostenik ematen ez bada (2022ko apirilaren 26ko deialdi-ebazpenaren 6.2.2 artikulua).

2022/2023 ikasturtea amaituta, 2022ko apirilaren 26ko Ebazpenean ezarritakoarekin bat etorritik, kontrako txostenik ez dagoenez, eta 2023ko uztailaren 20ko behin betiko Ebazpena argitaratu denez, zeinaren bidez izendatzen baitira unibertsitateaz kanpoko euskal hezkuntza-sistemaren mentoria digitaleko CompDigEdu programan parte hartzen duten Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoak, 2023/2024 ikasturterako, ikusi da ez dela agertzen 010133 Federico Baraibar BHI ikastetxea, bai eta Mentoria Digitaleko lanak egiteko proposatzen duen pertsona ere.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- 2023-2024 ikasturtean CompDigEdu Gelan sarean aholkularitza-lanak egiten dituzten ikastetxeen eta irakasleen Behin- betiko zerrendaren zabalkuntza argitaratzea (I. eranskina). Hautatutako ikastetxeak eta irakasleak beren gain hartuko dituzte deialdiaren 3. eta 6. artikuluetan ezarritako betebeharrak.

Bigarrena.- II. eranskinean zerrendatutako ikastetxe publiko esleitzea irakasle aholkulariak beren aholkularitza-lanetan sortzen dituen joan-etorriak eta mantenua ordaintzeko esleitutako zuzkidura ekonomikoak. Gastuak justifikatu ondoren ordainduko zaio ikastetxeari.

Hirugarrena.- Ikastetxeak, ohiko bideak erabiliz, esleitutako irakasleak ordezkatzeko eskatuko du, 2023/2024 ikasturtearen hasieran mentoretza-lanak hasten direnean.

Vitoria-Gasteiz sinatzen den egunean

Amaia Agirre Pinedo
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaria

I. ERANSKINA
AUKERATUTAKO IKASTETXEAK

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Irakasle mentorea	Ebazpena
Araba	010133	IES Federico Baraibar BHI	45679301J	Esleitua

Esleitua: Hautagaiak mentoretza-lanak egingo ditu bere ikastetxean eta erreferentzia-eremuko esleitzen zaizkion ikastetxeetan.

II. ERANSKINA
PROIEKTUARI LOTUTAKO ZUZKIDURAK

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Ematen den zuzkidurak
Araba	010133	IES Federico Baraibar BHI	1.300,00